



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL
ARETO FUTBOLEKO EUSKAL BATZRODEA

2017/18 DENBORALDIA

23 ZK.DUN ZIRKULARRA

ARETO-FUTBOLEKO EUSKAL LIGARA IGOTZEKO FASEA

Euskal Ligako kategorian egon daitezkeen leku libreak betetzeko helburuarekin, Areto Futboleko Euskal Batzorde honek, denboraldi honetarako Lehiaketan Planean ezarritakoaren arabera, aipatutako Igoera Fasea antolatu du, ondorengo arauei jarraiki

1.- PARTE HARTZEN DUTEN KLUBEK

Araba, Bizkaiko eta Gipuzkoa maila goreneko kategorietan hauen araudiari jarraituz sailkatu direnak.

2. - LEHIAKETA SISTEMA

Bira bakarreko liga sistema izango da.

Partida guztiak baloi ofizialarekin jokatu behar dira nahitaez ERREA URANO eta JOMA GAME SALA baloiarekin jokatuko dira aldiberean.

Partida hastean etxeko taldeak gutxienez 5 baloi izan beharko ditu: 2 arbitroarentzat, eta beste 2, kanpoko taldearentzat.

Xedapen hau betetzen ez duen taldea zigortuko du Lehiaketako Epaile Bakarrak.


Taldeak, gutxienez, partida hasi baino ordu erdi lehenago aurkeztu behar dira pistan, eta denbora tarte berean lizentziak aurkeztu beharko dizkiote epaileari eta kronometratzaileari.

Partida hasi baino hamabost minutu lehenago jokalekuan ezin izango da egon bestelako jarduerarik, kanpoko taldeak beroketa-ariketak egin ditzan.

Partida bat hasi ahal izateko, talde bakoitzak, gutxienez, jokatzeko moduan dauden sei jokalariez gain, taldearen ordezkari bat ere aurkeztu beharko du. Halaber, etxeko taldeek behar bezala identifikatutako eta arbitroaren esanetara dagoen **zelaiko ordezkari** bat aurkeztu beharko du nahitaez.

Partidek 20 minutuko bi zati izango dituzte, kronometratuko dira, eta 10 minutuko atsedena izango dute.

../..



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL
ARETO FUTBOLEKO EUSKAL BATZRODEA

- 2 -

3.- DATAK eta ZOZKETA

Partidak jolasteko datak .

27/05 BIZKAIA – ALAVA
03/06 ALAVA – GIPUZKOA
10/06 GIPUZKOA - BIZKAIA

4. - JARDUNALDIAK ETA PARTIDEN ORDUTEGIAK

Partiden data, ordua eta jokalekua partida jokatu aurreko asteko igandeko 24:00ak baino lehen jakinarazpenak egiteko ondorengo bideak dituzue eskura: web gunea: www.eff-fvf.eus ; Faxa: 944 732 221, edo posta elektronikoa: futbolsala@eff-fvf.eus eta asteleheneko 14.00ak arazoren bat izango luketen klubek frogatutako aldaketa egiteko.

Partidak hasteko ordutegiak tarte hauetan izan behar dira:

Larunbata: 15.30 - 20.00 Ord.
Igandea: 11.00 -13.00 eta 16.00 - 18.00 Ord.

Klub guztiek ezarritako partiden ordutegi ofizialak aldatzeko eskumena dute, betiere kanpoko taldea ados badago, eta Areto Futboleko Euskal Batzordeko Idazkaritzari idatziz jakinarazten badiote bi taldeek partida jokatu hamar egun baino lehen. Aldaketaren dokumentuan klubaren zigilua eta sinadura agertu beharko da.

Aldaketa horrek arbitroengan eragina duenez, ostiral, larunbata, igandea, jaieguna edota jaiegun aurretik jolasten ez diren partidak, zelaiaren jabeak diren klubek 13 € gehiago ordaindu beharko diote aipatutako arbitro bakoitzari.

Jakinarazpena idatziz egiten ez bada, edo epez kanpo egiten bada, eskatutako ordutegi aldaketari ez zaio baimenik emango.

5. – BERDINKETAK

Balizko berdinketak EFF-FVFK indarrean duen Araudiaren III. Liburuko 101.4 artikuluan ezarritakoaren arabera ebatziko dira:

Partida bakoitza bukatutakoan, emaitza zein nahi dela ere, 3 jaurtiketa egingo dira penalti-gunetik, taldeetariko batek irabazten duen arte. Emaitza hori kontutan hartuko da lehiaketaren sailkapen nagusian gerta daitezkeen berdinketak desegiteko azken aukera gisa.

../..



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL
ARETO FUTBOLEKO EUSKAL BATZRODEA

- 3 -

6. - ARBITROAK

Izendatutako arbitroak Lurralde kategoriakoak izango dira, eta zelaiko jabea den taldeak dagokion ordainagiria ordainduko du, zenbatekoa ohizko ligakoa izanik Arbitroa eta Mahaiko Epailea.

7. - DIZIPLINA BATZORDEA

Partida bukatzean, arbitroaren akta Euskal Batzordeari bidaliko zaio, posta urgentearen bidez, posta elektronikoz edo faxez, Epaile Bakarrak bere epaia eman dezan, hala suertatzekotan. **Akta asteleheneko 20.00ak baino lehen izan beharko du AFEBk.**

Honetaz gain, jakinarazten dugu, isun ekonomikoa ezartzekotan, Areto Futboleko Euskal ligarako zenbatekoak izango direla.

Hala jakinarazten zaie lehiatzen duten klubei, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Federakundeei, haien klubei jakinarazteko, eta Areto Futboleko Arbitroen Euskal Batzorde Teknikoari, jakin dezaten eta dagozkion ondorioetarako.

2018ko maiatzak 15 Bilbon

KEPA ALLICA BILBAO
Secretario General